WWW.ARBONNE.FR

ARBONAKO Berriak

N°20

GIZARTE EKINTZA
Kalitatezko bazkariak kantinan eta haurtzaindegian

INGURUMENA
Bizikletan maizago ibili nahi?

HIRIGINTZA
Hiri-inguruko naturaguneak eta laborantzako eremuak babesteko

2022 eko urtarrila

Herriko Etxea
10 route du Bourg
64210 Arbonne
Tél. 05 59 41 94 66
www.arbonne.fr
mairiearbonne
arbonne64

Idekitzeko orenak
Lundi 9h - 12h
Mardi 14h30 - 18h
Mercredi 9h - 16h
Jeudi 14h30 - 18h
Vendredi 9h - 12h

AURKIBIDEA

HERRIKO BIZIA p. 4
Herriko zerbitzuetako solaskide berriak

GIZARTE EKINTZA p. 5
Kalitatezko bazkariak kantinan eta haurtzaindegian

INGURUMENA p. 6 - 7
Bizikletan maizago ibili nahi?
Bigarren lorea arbonarentzat

HIRIGINTZA p. 8 - 9
Hiri-inguruko naturaguneak eta laborantzako eremuak babesteko perimetroa

KOMUNIKAZIOA p. 10 - 11
Zertan da zuntzaren hedapena?
Herriko etxeko webgune berria

KULTURA p. 11
Arbonako artista batzuk sarituak!

ELKARTEAK - KIROLA p. 12 - 13
Elkarte berri bat
Arbona, txapeldunen herria !

2021, GIBELERA BEHATUZ p. 14 - 15

ERREGISTRO ZIBILA p. 16

Directrice de la publication
Marie-José Mialocq
Comité de rédaction
Commission communication
Crédit photos
Mairie - vteldrone.fr - Pixabay
Couverture
Delphine Elhorga
Imprimerie
Antza Impression
Contact
Communication@arbonne.fr

GURE EGUNEAN EGUNEKO KONPROMISOAK 2022an JARRAITUKO DU

Arbonar maiteak,

2021 urtea bururatu da, eta hura ere arras urte berezia izan zen anitz alderdietarik. Halarik ere, hautetsientzat eta enetzat parada izan zen Arbonako kartier guzietara joateko, eta, han eta hemen, zuek kausitzeko. Zuekin, solas zintzoak, garbiak, interesgarriak, sustagarriak eta aberasgarriak izan genituen. Argiki erran zenuten eta konprenitu genuen denek gure herriaren garatzeko nahikaria dugula eta denek prezatzen dugula gure herriko bizi kalitatea.

Halaber, arrazoi anitzengatik satisfos zaretela entzun genuen, hala nola igandeetako merkatuarengatik eta oinezkoen bideengatik. Gure xedea da Herriko Etxearenganik igurikatzen duzuena egitera entseatzea, zuen beharrak ahal bezainbat kontuan hartzea eta informazioa eta komunikazioa hobetzea. Ene lehentasunak dira zuetarik oraino gehiago hurbiltzea eta zuen beharrak oraino fiteago asetzea.

Herri aldizkari honetan, informazio anitz irakurriko dituzue: obren finitzea, zuntz optikoaren instalatzea, laborantzako lurren gerizatzea, Herriko Etxearen proiektuak eta herriko pertsona ohargarriei –kirolari, elkarteetako kide eta artistei– buruzko berriak, haietaz harro baikara eta eskerrak eman nahi baitizkiegu.

2021 urte hondarrean, Arbonako herria neguko kolore eta argiztapenekin edertu zen eta Eguberriko merkatuak antolatu ziren. Baina, osasun krisiarengatik, ez zen nahi bezainbat jende bildu ahal izan. Alta, osasun egoeragatik kasu egitea beharrezkoa bada ere, urte hondarreko bestak elkartzeko eta kohesiorako memento inportanteak dira. Eta partekatzea eta elkartasuna gure engaiamenduaren parte dira.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet eremu publikoaren kalitatearen, liliztatzearen eta edertzearen alde lanean ari diren herriko langileei, haien lanari esker, Hiri Loredunen Lehiaketako epaimahaiak gure herriari bigarren lorea eman baitio!

Aurten, osagarri, zorion eta bozkario agiantzak sekula baino inportanteak dira. Baina, ez dut dudarik, geroa hobea izanen dela eta hainbertze falta zaizkigun lagun arteko mementoak laster berriz biziko ditugula.

Denei desiratzen dizuet 2022 urte ezin hobea

Zuen auzapeza
Marie José Mialocq

Bihotzez
Marie José Mialocq

Herriko zerbitzuetako solaskide berriak

Arbonako herriak bi langile berri hartu ditu. Ongietorri biei gure zerbitzuetara. Zinez kontent gara, jadaneko zuen lana arras emankorra baita.

Bata, Pascale POURRUT. Azaroaren 2az geroztik, hark errezibitzen zaituzte Herriko Etxean. Zuen solaskidea izanen da, argibide edo desmartxa administratibo bat galdatuko diozuelarik. Hala, eguneroko biziko argibide baliosak emanen dizkizue.

Bertzea, Sandrine VIDAL. Herriko haurtzaindegiko zuzendari berria da. Badu 17 urte ospitaleetan eta harrera anitzeko egituretan lan egiten duela. Lehen haurtzaroko lanbide gaitasun agiria duten hiru langile titularrekin ari da lanean haurtzaindegian, eta hamar bat haur errezibitzen ditu egun guziez.

BIZTANLE KONTAKETA

16 urteko gazte frantses orok biztanle kontaketaren deklarazioa egin behar du; nahitaezkoa da. Deklarazioa egin ondoan, biztanle kontaketaren agiria eskuratuko du. Agiri hori desmartxa jakin batzuetarako aurkeztu beharko du (adibidez, baxoan edo gidabaimenean izena emateko). Biztanle kontaketak ahala ematen dio administrazioari gazteak defentsaren eta herritartasunaren egunera deitzeko.

16 urte betetzen dituen egunetik hirugarren hilabetearen bururatze egunera arteko epea du gazteak biztanle kontaketaren deklarazioa egiteko. Bizi den herriko Herriko Etxean egiten da deklarazioa.

Agiri hauekin joan behar du Herriko Etxera:

- Nortasun agiri nazionala edo pasaportea, baliozkoa
- Familiako liburuxka
- Bizilekuaren frogagiria

2022-KO BOZEN EGUTEGIA

Presidente bozak: 2022ko apirilaren 10ean eta 24an
Kargualdiaren iraupena: 5 urte

Diputatu bozak: 2022ko ekainaren 12an eta 19an
Kargualdiaren iraupena: 5 urte

- Bozka zerrendetan izena eman daiteke, berantenaz bozketa baino 6 aste lehenago. Horrek erran nahi du, 2022ko presidente bozetarako, bozketa zerrendetan izena ematen ahalko dela 2022ko martxoaren 4a arte.

- Herritar bakoitzak zuzenean egiazta dezake bere bozetako egoera. INSEEren esku den bozetako errepertorio bakarra sortu denez geroztik, herritar bakoitzak egiazta dezake bozka zerrendetan izena emana duen ala ez, eta bere bozketa bulegoa zein den jakin dezake zerbitzu publikoaren webgunean: www.service-public.fr

- Lineako izen emate orokortua. Herritar bakoitzak, bizi den herria edozein izanik ere, Internet bidez izena eman dezake, zerbitzu publikoaren webgunean. Bestenaz, orain arte bezala, Herriko Etxeko harrera gunean izena eman dezake ere.

Kalitatezko bazkariak kantinan eta haurtzaindegian

Herriak, 2021ean, eskolako jantegirako merkatu deialdi berria hedatu zuen. Merkatu deialdi hura zorrotzagoa zen, kualitatiboagoa, eta legezko betebeharrak baino urrunago zihoan zenbait berrikuntzarekin. Oroz gainetik, produktuak dibertsifikatuak izan behar ziren, eta, ahal zelarik, laborantza biologikoaren araberakoak. Gainera, urte osoan, behar gabeko xahutzeen kontrako programa plantan ezarri behar zen. Jantegiko bazkariak hornitzen dituen Suhari enpresak eskakizun horiek betetzen zituen.

Jantegia = 1 €: irabazi ttipiak dituzten familiendako dirulaguntzak

Pobreziaren kontra borrokatzeko estrategia nazionalaren barnean, Estatuak dirulaguntza bat aurreikusten du eskolako jantegietan prezio sozialak ezartzen dituzten herri batzuendako. Horretarako, herriak mekanismo honen arabera finkatu behar ditu jantegiko prezio sozialak: familien irabazietan edo familia kozienteetan oinarrituriko 3 prezio mailakatu, gutienez; eta, haietan, euro bat edo gutiagoko prezio bat, eta euro bat baino gehiagoko bertze prezio bat, gutienez. Arbonako herriak dirulaguntza hau erdiesten ahal luke, eta, horretarako, lehenbailehen finkatuko ditu prezio berriak, irabazi ttipiak dituzten familien fakturak arintzeko.

SUHARI ENPRESA

SUHARI enpresa 1991n sortu zen, Senperen. Berezitua da ikastetxeetako sukaldaritza kolektiboan eta apairuak jendeen etxeetara ekartzean. Tokiko ekoizleen alde azkarki engaiatua da eta enpresaren garapen kontrolatua du. Bi ezaugarri hauen arteko orekan oinarritzen da SUHARI, eta kalitatezko eskaintza proposatzen die mahaikide guziei. Gaur egun, enpresak hogeita hamar langile baino gehiago ditu, Pirinio Atlantikoetako bi ekoizpen gune modernotan banaturik, Senperen eta Maule-Lextarren. Gure herrian, Suharik apairuak prestatzen eta ekartzen ditu eskola publikora, haurtzaindegira eta jendeen etxeetara.

GIZARTE EKINTZAKO HERRIKO ZENTROAK (GEHZ) APAIRUAK ETXEETARA EKARTZEA

Euro batez jautsi da adineko edo bertzeen meneko diren jendeendako etxera ekarri apairuen prezioa. Orain, apairu haien prezioa 5 eta 8,50 euro artekoa da, hartzailearen baliabideen arabera.

Etxeko laguntza
Herriak etxeko laguntzaileak xerkatzen ditu

Arbonako Gizarte Ekintzako Herriko Zentroak (GEHZ) etxeko laguntzaileak xerkatzen ditu, bertzeen meneko diren adineko jendeen etxeetan lan egiteko. Garapen handia duen jarduera da, eta, horri esker, gure zaharrak ahal bezain luzaz egoten ahal dira haien etxean.

Lan honek interesatzen bazaitu, zure etxe ondoko langile hartze egituretarik batekin harremanetan jartzen ahal zara. Horretarako, joan zaitez www.autonomie64.fr webgunera («adineko jendeak» atala), edo, bestenaz, jar zaitez harremanetan zure desmartxetan lagunduko zaituen Arbonako Herriko Etxearekin: mairie@arbonne.fr edo 05 59 41 94 66.

Oinezkoen bidearen luzatzea

D255 errepidearen bazterrak antolatzen segitu dugu, Xutaeneko bidearen eta Mahotaeneko Landa etxe multzoaren arteko oinbideen luzatzearekin. Orain, oinez ibil daiteke herriaren iparraldetik hegoaldera, eta herri barnera joan daiteke segurtasun osoz.

Autobus aterpe berrien ezartzea

Herri barnean eta kirol eremuan autobus aterpeak ezarri dira.
Horri esker, eskolako garraioaren eta Hegobus zerbitzuaren erabiltzaileak segurtasun osoz eta haizetik eta euritik gerizaturik egoten ahalko dira autobusaren beha.
Ordutegiak eta ibilbideak : hegobus.fr

Bizikletan maizago ibili nahi?

Mugikortasunaren gaia ez da afera ttipia euskal kostaldean eta barnealdean. Garraiobide guziak berriz pentsatu behar dira, eta partikularki bizikletaren erabilera. Horregatik, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluaren, Ipar Euskal Herri eta Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren eta ADEMEren (AVELO2) laguntzarekin, Arbona, Biarritz, Bidarte eta Getariako herriek elkarrekin gogoetatu nahi lukete, bizikleta-estrategia egituratzaile bati buruz.

Helburua? Lurraldeko sare trinkoagoa eskaintzea eta, hala, gero eta handiagoa den eta osasun krisiak bereziki nabarmendu duen bizikletaren erabileraren beharrari erantzutea.

Nola burutuko da lan hau gure herrietan?

Herrien arteko lotura hauek landuko dira :
- Biarritz-Bidarte,
- Ilbarritz-Muriskot-Harausta,
- Biarritz-Bidarte-Arbona,
- Arbona-Bidarte,
- Getaria-Bidarte,
- Getaria-Bidarte-Arbona,
- Getaria-Bidarte-Biarritz.

Nola parte hartu prozesuan?

Herritarren beharrak hobeki konprenitzeko, herriek hitzartze kanpaina handi bat abiatu dute. Lehen urratsean, galdeketa bat ezarriko da linean, www.arbonne.fr webgunean. Galdeketa horretan, txirrindulari esperientziadunek, hasiberriek eta sekula bizikletan ibili ez diren herritarrek ere beren beharrak, nahiak, oharrak eta abar jakinarazten ahalko dituzte.

Bigarren lorea arbonarentzat

Arbonak hozka bat garrantzi handikoa gainditu berri du garapen iraunkorraren aldeko eta bizi ingurumenaren edertzeko bere politikan. Izan ere, Hiri eta Herri Loretsuak labelaren bigarren lorea erdietsi du! Uztailean, eskualdeko epaimahaia errezibitu zuen herriak. Eta epaimahai horrek estimatu zituen Arbonako herriak bizi ingurumenean, liliztatzean, hiri-antolamenduan eta garapen iraunkorrean egin ekintzak..

Epaimahaia osatzen dute turismoaren, baratzezaintzaren, paisaiaren eta ingurumenaren arloetako profesional edo pertsona kualifikatuek. Hiru urtetarik, labela erdietsi duten herriak kontrolatzen ditu, eta haien sailkapenaren bilakaeraz deliberatzen du.

Sari horrek goresten ditu berdeguneen herriko zerbitzuak eremu publikoen mantentze eta balorizazio lanetan eginiko indarrak. Langileen sustatzeko, bertutezko ohiduren garatzeko eta zeharkakotasunean lan egiteko parada ematen du ere.

> “Bigarren lore honen bidez, saritzen dira herriak jabego publikoaren antolatzeko eta ingurumena errespetatzeko egiten dituen eginahalak.”

Hiri-inguruko naturaguneak eta laborantzako eremua

Arbonako 300 hektareako laborantzako lurren babestea eta kudeaketa plan baten osatzea

Herriak berriki deliberatu du Pirinio Atlantikoetako departamenduari galdatzea hiri-inguruko naturaguneak eta laborantzako eremuak babesteko perimetroa (PEAN) plantan ezar dezala, Euskal Hirigune Elkargoaren laguntzarekin.

PEAN delakoa lurra babesteko zinezko tresna da. Tresna hari esker, herriak eta laborariak segur dira perimetroan sartu lurrak epe luzean laborantzako jarduerarako erreserbatuko direla, edo naturaguneak edo oihanak izanen direla.

Zein dira herriak orain arte erabili dituen eremu horien zaintzeko moldeak?

Bata, lurraren jabe izatea (herriak 13,8 ha erosi ditu 2008az geroztik). Bertzea, tokiko hirigintza planean (THP) eremu horiek laborantzako edo naturako eremuetan sailkatzea. Bi ikerketa (bata laborantzakoa, bertzea hirigintzaren ingurumen ikuspegikoa) izan ziren gure THParen egiteko oinarriak. Hala, 2019an, Euskal Hirigune Elkargoak gure THP onartu zuen, eta lurren % 83,6 laborantzako eta naturako eremuetan sailkatu genituen, etxeekilako lur ahal bezain guti sortuz eta ondoko hamar urteetako lurraren baliatzea bitan zatituz (40,5 ha-ren ordez 18 ha).

Baina hori ez da aski. Lurraren eta bizitegiaren arloan egoera tirabiratsua duten Ipar Euskal Herriko 24 herrietarik bat da Arbona (2.342 biztanle eta 1.100 ha-ko hedadura). Eskaera eskaintza baino handiagoa da. Lur eraikigarriaren prezioak azkarki goratzen ari dira.

Hiri-garapeneko proiektuei (bizilekua, jarduerak, aisialdia, azpiegiturak...) ihardesteko hirigintzako dokumentuak etengabe eta laster kanbiatzen dira, baina ez dituzte bermatzen epe luzera laborantzako eta naturako eremuak babesteko zonifikazioak edo joerak. Muga argirik, eta, batez ere, iraunkorrik ez izateak jabeen jokamolde espekulatiboak faboratzen ditu, laborantzako jardueren plantatzearen eta mantentzearen kaltetan. Hori dela eta, lurrak atxikirik dira, eta eremu abandonatu horiek berreskuratzeko banakako ekimenak blokeaturik dira.

Laborariek lurraren epe luzeko ikuspegia behar dute beren langintza mantentzeko, inbestimenduak egiteko edo haien segida aitzinetik pentsatzeko.

Bertze tresna batzuk

Hiri-planifikazioaz gainera, legegileak bertze zenbait tresna sortu ditu 1999tik, haietan PEAN delakoa (baserrialdeko lurraldeen garapenari buruzko 2005eko otsailaren 23ko legea), hiri-inguruko herrietarako bereziki pentsatua. Eta LEAN horrek du gure arreta guzia bildu.

Izan ere, tresna berritzailea da, arrazoi hauengatik :

- Ikuspegi orokorragatik : laborantza-, natura- eta oihan-eremuak.

- Edukiagatik : urbanizazioagatik, erabilera-gatazkengatik eta lurraren prezioagatik nabarmendu beharreko perimetroaren mugatzea, eta, honi loturik, esku-hartze perimetroaren barnean, laborantzako jarduera, oihanaren kudeaketa, naturaguneen eta paisaien zaintzea eta balorizatzea helburu duten kudeaketa-norabideak eta antolamenduak zehazten dituzten ekintza egitasmoak.

k babesteko perimetroa

• Bertze tresna batzuk
Hiri-planifikazioaz gainera, legegileak bertze zenbait tresna sortu ditu 1999tik, haietan PEAN delakoa (baserrialdeko lurraldeen garapenari buruzko 2005eko otsailaren 23ko legea), hiri-inguruko herrietarako bereziki pentsatua. Eta LEAN horrek du gure arreta guzia bildu.
Izan ere, tresna berritzailea da, arrazoi hauengatik:

•Ikuspegi orokorragatik : laborantza-, natura- eta oihan-eremuak.

•Edukiagatik : urbanizazioagatik, erabilera-gatazkengatik eta lurraren prezioagatik nabarmendu beharreko perimetroaren mugatzea, eta, honi loturik, esku-hartze perimetroaren barnean, laborantzako jarduera, oihanaren kudeaketa, naturaguneen eta paisaien zaintzea eta balorizatzea helburu duten kudeaketa-norabideak eta antolamenduak zehazten dituzten ekintza egitasmoak.

PEAN delakoaren perimetroan sartu lursailak ezingo dira geroan Tokiko Hirigintza Planean (THP) U (urbanizagarria) edo AU (urbanizatu beharrekoa) zonifikazioan sartu. Ministerio arteko (Ingurumen, Laborantza eta Hirigintza ministerioak) dekretu bat beharrezkoa da perimetroa tipitzeko. Blokeo horren bidez, tokiko hautetsiei laguntzen zaie, PEANetik lursail bat kendu nahi duten jabeen presioari buru egiteko.

Perimetro edo zonifikazio horiek ezartzeak lurraren bilakaera irakurterrazago bihurtzen du, eta, hala, seinale argia ematen du hiri-inguruko herrietan izan daitezkeen espekulazio edo atentismo jokamoldeen kontra.

▸ Oroitzekoa

Hiri-inguruko arazoak dituen departamendu batean (batez ere kostaldean), PEAN delakoa tresna eraginkorra da laborantzako eta naturako eremuak babesteko eta balorizatzeko, eta, gainera, eremu horietan egiten diren langintzak laguntzeko.

Laborantza, hirigintza eta ingurumenaz arduratzen diren ministerioen DEKRETU baten ondorioz baizik ez daiteke onar perimetro batetik lursail bat edo gehiago kentzea ondorio gisa dakarren aldaketa oro.

THP bateragarri egitea

Interes orokorreko proiektu bat egin ahal izateko, gizarteko nahasketaren helburua beteko duen “Etxeta” izeneko bizileku programa baten bidez. Herriko kontseiluak 2021eko abenduaren 17an onartu zuen erabakiaren ondorioz, hitzartze bat plantan ezarriko da, Tokiko Hirigintza Plana bateragarri egiteko xedeak iraunen duen artean, herritarrak, tokiko elkarteak eta interesa duten bertze pertsona batzuk elkar aditzeko.

Hitzartzea laster antolatuko da, gisa honetara :

- THP bateragarri egiteko xedea bururatu arte interesdun guzien oharrak biltzeko erregistroa jendearen esku ezartzea. Erregistroa Arbonako Herriko Etxean kontsultatzen ahalko da, Herriko Etxea irekirik den tenore eta egunetan,
- Auzapezari postaz edo posta elektronikoz (urbanisme@arbonne.fr) idazteko aukera,
- THP bateragarri egiteko xedeari buruzko dosierra denen esku ezartzea Herriko Etxean,
- Ikerketei eta prozedurari buruzko informazioa linean jartzea, herriaren webgunean, helbide honetan : www.arbonne.fr/plu,
- Herriko Etxean prozeduraren aurkezpenari buruzko informazio taula afixatzea.

Zertan da zuntzaren hedapena?

Pirinio Atlantikoetan zuntzaren hedapena akuilatzen dute Departamenduak, herri elkargoek eta hirigune elkargoek. Denak elkartu eta La Fibre64 sindikatu mistoa sortu zuten. Eskaintza deialdi baten ondotik, SFR FTTH-en adarra den THD 64-k du Pirinio Atlantikoetako abiadura oso handiko sarea diseinatu, finantzatu, eraiki, merkaturatu, mantendu eta ustiatzen. Gaur egun, zuntzaren hedapena egiten ari da Arbonan.

THD64-ri 3 gal - (Très haut débit 64)

Ene helbidean zuntz optikoa instalatzen ahal dea?

Zure bizitegian zuntz optikoa instala daitekeen jakiteko, hiru informazio iturri dituzu : thd64.fr webgunea ("hautagarritasun-mapa" atalean; zure bizitegian marka berdea baldin bada, orduan zuntz optikoa instala diezazukegu) Zure operadore komertzialaren webgunea (Interneteko sarbide hornitzailea) Arcep-en webgunea : cartefibre.arcep.fr.

Ene helbidea ez da agertzen hautagarritasun testan. Zer egin behar dut?

Zure bizitegia ez da oraino zuntz optikorako hautagarri, baina kontuan hartua da FTTH zuntzaren hedatzeko planean. Hedapena pixkanaka egiten da, eta helbideak erregularki eguneratzen dira hautagarritasun testerako tresnan. Hala ere, jadaneko zuntza instalaturik duten edo ondoko hiru hilabeteetan instalaturik izanen duten helbideak bakarrik agertzen dira tresna horretan. Beraz, zure hautagarritasuna testatzeko, www.thd64.fr webgunera joan behar duzu, erregularki. Aldi berean, zuntza zure herrira edo auzora iritsiko delarik, Interneteko sarbide hornitzaileek, klienteekiko komunikazio kanalaren bidez (bistaratzea, mezu elektronikoak, SMSak...), horren berri emanen dizute.

Ene etxearen inguruan zuntz optikoaren hedapena arazotsua da (kableak jabego pribatuan, kableak etxe aitzinaldean finkaturik, kableak ene leiho eta atetik hurbilegi pasatzen...). Zer egin behar dut?

Hedatzen ditugun zuntz azpiegiturek France Telecom / Orange operadore historikoaren kobrezko eta ADSL azpiegituren "bideari" jarraikitzen diote.

Eta hori egiten da indarrean den araudiaren arabera. Hala, konexio optikoko puntu edo zuntz kutxak (PBO) lehenagotik zeuden Orangen amaiera optikoaren puntu (PTO) edo kobrezko DSL kutxen ondoan instalatzen dira.
Zuntz-kableak beti dira kable beltzak, eta Orangen kobrezko DSL kable zuri eta beixei kolaturik instalatzen dira.
Indarrean den araudiaren arabera, bigarren azpiegitura-operadoreak (kasu honetan THD 64-k) baimenik gabe instala dezake (bere kutxa instalatuz gero lehenagotik zegoen kutxaren ondoan eta lehenagotik zegoen bideari jarraituz), eta hori lehen zortasun horren onurarako.

HERRIKO ETXEKO WEBGUNE BERRIA

Herriko etxeko webgunea berritua da eta « diseina » berri bat eskaintzen du. Ergonomikoa, praktikoa et intuitiboa, webgune berriak ihardesten du hobekiago zuen galdeeri. Heldu den hilabetean linean agertuko da.

"Diseinu argitu eta partitze egituratuago bati esker, gunearen asteko paiak www.arbonne.fr argiagoa eta ergonomikoa izanen nahi du" hunen indarguneak segidan aipatuz. "Erabiltzeko errexagoa bere menuari esker, sail guzietara zuzenean sartzeko hautua emaiten duena, osoagoa, erabiltzaile desberdinentzat beharrezkoa den informazioa nasaiki biltzen duelakotz eta azkenik argiagoa, denentzat eskuragarri dagoen informazionearekin".
Berritasun artean, sarbide lasterra "lanetako informazioak" bitartez, aipatzen ditu egiten ari diren antolamenduak eta gerta diezken nahigabeak.

Gune berri hau konsulta-modo guzietara egokitzen da : telefono, tauleta edo ordenagailu, legezko betebeharrak betetzen ditu eta bere burua aberasten du bai eta aintzina joanez zure adminiztrazio urratsak errexteko.
Webguneak dauden komunikazio desberdinak osatzen ditu, ala nola urtean bihetako herriko agerkaria, afixatze taulak, Facebook eta Instagram paiak, bai eta albisten gutuna ere. Huntara abona ditake izena emanez webgunearen paia beherean.
.

Arbonako artista batzuk sarituak

Gilles Lavie eta Anne-Marie Cabanaq, pintoreak
Christiane Urkia-Martin, kulturaz eta ondareaz elkargatu axuanta

Andere seroraeneak ideki ditu ateak usaian ez bezala, abendoan

Brouillarta des Artistes gertakariaren 23. edizioa, kanpoko arte galeria eta margolari eta eskultoreen hitzordua, Biarritzeko hondartza handiko lorategietan antolatu zen, urriaren 9an eta 10ean, larunbatean eta igandean. Ehun bat margolari, zizelkari, urmargolari eta pastelista amatur eta profesional bildu ziren, beren lanak jendeari erakusteko. Erakusketa horrek urte guziez 3.000 ibiltari inguru erakartzen ditu. Gilles Lavie eta Anne-Marie Cabanacq margolari arbonarrek, hurrenez hurren, publikoaren "bihozkada" saileko lehen eta bigarren sariak irabazi zituzten. Andere Seroraenian izan ziren joan den abenduan, hilabete batez, gaitzeko arrakasta ukan zuen erakusketaren kari.

Elkarte bat andere seroraeniarentzat

Andereseroraenia elkarteak du berriki arte Andere Seroraeniaren animazioa kudeatu eta etxe sinboliko hura urteetan babestu eta balorizatu. Baina, orain, elkarteak ez du gehiago aktibitaterik antolatuko Andere Seroraenian. Arbonako herriak, beraz, kultura eta erakusketa leku hau kudeatuko duen elkarte berri bat xerkatzen du. Interesa duen oro jar dadila harremanetan Herriko Etxearekin, 05 59 41 94 66 telefono zenbakira deituz edo helbide elektroniko honetara idatziz: communication@arbonne.fr

Hegoak mendian, lasterkaldiak denentzat eskuragarri izan daitezen

Ahalmen urritasuna duten pertsonekin mendian ibiltzea. Hegoak Mendian ezagutzen duzue? Arbonan egoitza duen elkarte berri bat da, eskualde osoan ezaguna.

Elkartearen helburu nagusia da ahalmen urritasuna duten pertsonei taldean kirol esperientzia zirraragarriak bizitzeko parada ematea, joëlette izeneko aulkiari esker (bertze pertsona batzuek gidatzen duten eta erdiko errota bat edo bi dituen aulki gisako bat), mendi lasterketan trebatuz eta lasterkaldietan parte hartuz.

Horretarako, elkarteak harremanetan ezartzen ditu mendiko ateraldietan parte hartu nahi duten ahalmen urriko jendeak eta mendiko lasterkari trebatuak.

Hegoak Mendian elkarteko lasterkariak trenpu onean diren kirolariak dira, mendiko baldintza teknikoetan ibiltzeko gai direnak eta joëlette aulkia erabiltzeko usaia dutenak.

Lagunduriko pertsonek ahalmen urritasun mota bat ala bertzea izan dezakete (fisikoa edota neurokognitiboa), eta helduak ala haurrak izan daitezke. Gai izan behar dute gutienez oren batez edo biz joëlette aulkian jarririk egoteko, eta taldeari deseroso edo beldur direla seinalatzeko. Arazo psikikoak edo komunikaziokoak dituzten haurrek edo helduek ahaide hurbil batekin egon behar dute.

Hegoak Mendian elkartearen nahia da, tokiko zenbait kirol gertakariren bidez (Euskal Trail, Skyrhune, Makea Oinez...), talde osoari –lagunduari eta laguntzaileei– memento bikainak biziaraztea, eta elkartasun oldar horrek denboran irautea.

Elkarte baten sortzea

2019an, Laurie Marianiren ekimenez, lasterkari talde ttipi bat joëlette aulki batekin Trail Gourmand lasterkaldian (2 x 25 km eta 1.000 m-ko desnibel positiboa bi egunez segidan) parte hartzeko elkartu eta trebatu zen, 2019ko maiatz hondarrean. Hola, «Hegoak Mendian» izeneko hamabost bat lasterkariko talde horrek, tokiko elkarteek lagundurik –haietan «L'Autruche sur un fil de soi « elkarteak–, eta Euskal Raid elkartearen adostasuna eta laguntzarekin, ahalmen urritasuna zuten 4 laguni lagundu ahal zien Euskal Trailaren bi eguneko lasterkaldian.

Elkartasun ariketa bikain horri esker, taldeko zenbait kidek joëlette bidezko lasterkaldien abenturarekin segitu nahi izan zuten, eta, hola, bertze ahalmen urriko boluntario batzuk gure mendi ederretan barna lagundu, partikularki tokiko kirol gertakarietan.

2019 urte hondarrean, proiektuek segitzeko eta gure elkartea ezagutarazteko, taldeko hiru kidek, Thomas, Marc eta Brigittek, Hegoak Mendian elkartea sortzea erabaki zuten.

> Kontaktuak eta informazioa :
www.hegoak-mendian.fr

Arbona, txapeldunen herria!

2021. urtea bikaina izan zen gure pilotarientzat. Lehenik, sorpresa eta bozkario handia izan zen Nicolas eta Adrien Dufauk plazako "nazional A" finalean parte hartzea, euskal pilotaren aste handi famatuan. Zorigaitzez, Senpereko bikote onaren kontra galdu zuten, 30 eta 19. Thomas Dizaboren parte hartzea ohargarria izan zen balentria eder hartan.

Aipatu behar da da, halaber, Maritxu Houssetek Euskal Herriko eta Frantziako txapela irabazi zituela, Amaia Etchelecourekin.

Azkenik, Allande Chapelet-Housset gazteak, Frantziako hirugarren txapela irabazi zuen euskal pilotaren aste handian, Iholdiko plaza ederrean, Lucas Bidart Bardozeko bikote kidearekin, 400 ikusleren aitzinean.

Balentria guzi horiek konfirmatzen dute Arbona herri hoberenetarik bat dela pilotaren historian. Biba gure txapeldunak!

Ezker paretaren herri kudeaketa

Bil Toki herriko eskolen eta elkarteen esku ezarria da, kitorik. Gainera, partikular guziek alokatzen ahal dute.

Prezioak:

Alokatze bakarra astegunetan, 18:00etatik goiti: oreneko 20 €
Alokatze bakarra astegunetan, 18:00ak aitzin: oreneko 15 €

Hilabeteko abonamendua, astean oren bat: hilabeteko 68 €
Hilabeteko abonamendua, astean oren bat eta erdi: hilabeteko 102 €
Hilabeteko abonamendua, astean bi oren: hilabeteko 135 €.

Argibideak eta erreserbak
Libro diren lekuen arabera
Herriko Etxera deituz (05 59 41 94 66)
Edo idatziz (mairie@arbonne.fr).

Kanbiamenduak bil tokin

Jean-Paul Carriquiryk zuen Bil Toki kudeatzen 2014az geroztik. Orain, aldiz, gakoak bertze batzuen esku utzi ditu, abentura berria has dadin.
Pilotara errabiatua zen, eta xareko jokalari gaitza. Luzaz arbonarrei apairu goxoak prestatu dizkie ere, hala nola idi saiheskiak, pintxoak, arroltze moletak eta ogitartekoak. Segi hola-hola Jean-Paul!

« Har oldar berri bat! »

Marathon International de Biarritz – Pays Basque

Biarritzeko nazioarteko maratoiaren lehen edizioa 2022ko ekainaren 5ean antolatuko da. Ibilaldiak itzuli ederra eginen du Agilerako kirol eremutik abiatuz eta Arbonatik pasatuz !

Biarritz Olympique Omnisportsek antolatuko du kirol gertakaria. 3.000 lasterkari izanen dira.
Euskal Herriko giro bikainaz gainera, lasterketan proposatu ibilbidearen izaera berezia da Biarritz-Euskal Herriko Nazioarteko Maratoiaren marka. Agilerako estadio ospetsutik abiatu eta han berean bururatuko den lasterkaldiak bazter zoragarriak zeharkatuko ditu.

Maratoia lasterkari trabatuentzat da, baina bertze proba batzuk ere proposatzen dira, hala nola maratoi erdia edo 12 km-ko lasterkaldia. Haurrek ere beren lekua izanen dute ekainaren 4an, adinaren araberako 400 metro eta 3 kilometro arteko lau ibilbide antolatuko baitira.

▶ **Argibide guziak hemen: www.marathonbiarritz.com**

2021
Gibelera behatuz

1

2

3

4

1

Igande goizeko merkatua Urbileko merkatari eta ekoizleak

2

Haurrendako animazioak Arbonako bestak denboran Abuztuaren 8-an

3

Kontzertuak Arbonako bestak kari Abuztuaren 7-an

4

Harismendi plaza eta elkarte etxearen arteko bide baten sortzea

1

Elkarteen goiza buruilaren 5-an

2

Olentzero, Arbonako gau eskolak antolatua abendoaren 19-an

3

Eguberriko Merkatua abendoaren 23-an

4

Eguberriko eskaintzen agertzea eskola publikoan abendoaren 16-an

2021KO ERREGISTRO ZIBILA

SCOTZEAK

PACOU Louise
MASSE Imanol,
DIRSON GONZALES Alexandre
LANDARRETCHE Ibai
OVÉ Marlon
LORIOUX Louis
ETCHEGARAY Kepa
TOUZAINT MEUNIER Lucas
ESCRIBANO FERREIRA Martin
LAVILA Théo
HEGOAS BERNADET Zuhaitz
LARRIBE Naïa
BÉRASATÉGUI Eneko
MESTELAN Jean
DOS SANTOS PEREIRA BOITEUX Marie
BUNEL Elio
ZABALETA Luma
BÉRARD Leire
LABORDE Alba
GRAMONT MILLET Clémentine
LA FONTA Malo

EZKONTZAK

Kéchèle POTHIER
Grégory ROCHUT
Claire BIDET
Ulysse GATARD
Brenda SINNO
Alvaro VERA CRUZ
PIMENTA FERREIRA
Caroline CHAUVEAU
Fabien OLIVENCIA
Edina BARTELS
Guillaume FOURQUET

HERIOTZAK *(erretreta etxe salbu)*

ALOR DUPUIS Nicole
CABALLERO Manuel
DARRIEUSSECQ CEBEDIO Danielle
DE MALHERBES Baudoin
DE SOUTER Olivier
DESGANS Claude
GUERY ENNEBICK Yvonne
HARAMBILLET Jean
HERNANDEZ HEGOAS Laure
IBARRA SABAROTS Catherine
LAFFITTE Jean-Baptiste
LASAGA ONDRIOZOLA Augustine
LAVANANT Yvette
LEROY ETCHELECOU Marcelle
MORONVALLE Tony
NARP Michel
SIMONNEAU Jean-Claude
THIEBAUT Michel

HATS BERRI BAT ARBONARI

Kargu honen hasiera Hats Berri Bat Arbonari taldeko hautetsientzat bi pario garrantzitsuren azaltzeko aukera da. Gure ustez bidezko eta ezinbestezkoak dira :

- Arbonar guzien benetako beharrak hobeki kontuan hartzea :
Adinezkoak

CCAS-ak ez du gehiago etxeko lanetako laguntzarik eskaintzen. Laguntza hau Arrangoitzeko herriak kudeatzen zuen. Zerbitzua gelditu duenez, gaur egun ez da ordezkapen proposamenik. Hunkitutako familiak azken unean jakinean izan dira.
Gazteak

Eskola publikoan, bazkarien prezioa igo da. Herriko etxeak ez du %100-eko diru parte hartzerik bozkatu bazkarien hobetzeko.
Eskola berriarekiko proiektuari dagokionez, ez da parte hartze komisiorik bildu lehentasunezko gisa aurkezten den proiektu hortarako...

- Ingurumenarekiko parioak hobeki kontuan hartu :

PEAN : (Laborantza eta natura eremuen babesteko perimetroa)
Lurren artifizializarioaren aurka egiteko PEAN proiektua ustez eraginkorra izango ote da? Herriko laborantza, natura eta oihan gune guziak kontuan hartuko ote dira? Duela 20 urte tresna hau existitzen dela, zergatik ez da 2013 eta 2019ko PLU lanetan kontutan hartu ?

Herri loreztatuen bigarren lore baten bila joan ordez, larriago da Uhabia errekaren kutsadura eta ur sanotze sare partekatuaren arazoen konpontzea, herrian laborari berrien hemendatzen laguntzea, tokiko ekoizpen zirkuituak…

Mugikortasunak
Herriaren mugikortasun leunen ekipamenduak eskas dira oino. RD255 bidean "Hameau"auzoa pasatu eta ez dago espaloirik. Egin berri izan diren lanetan ez da bizikleta biderik sortu… Ez dira ere azken lan hauek baliatu EDF eta telefono harien lurperatzeko, ibiltarien bidea errazteko eta kutsadura bisualaren kentzeko...
Arbonarrak kolegio eta lizeoetara eramateko garraioentzat dena dago burutu gabe.

Oraindik ez da BAB eta Senperera joateko garraio partekaturik eta ez dugu hortarako inolako proiekturik ikusten!

KORRIKA 2022 Amurriotik Donostiara Martxoaren 31tik Apirilaren 10era.

Zatozte denak Euskara sustengatzera! Gure herriko hizkuntza bizi dadin ! ARBONA-n Apirilaren 9-an pasatuko da KORRIKA arratseko 11-etan. HITZEKIN!
https://korrika.eus